


eman ta zabel zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

EUSKARATIK ALEMANERA ZEHARKA ITZULI DIREN
LITERATUR LANEN ANALISIA

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Ander Hidalgo Rodríguez

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

2020-2021 ikasturtea

Zuzendaria: Mikel Babiano Lopez de Sabando

Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila

Itzulpengintza eta Interpretazioko Arloa

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan euskaratik alemanera zeharka itzulitako literatura aztertuko dugu, euskal itzulpengintzaren ikerketa-esparruaren ezagutzan sakontzeko asmoz. Zeharkako itzulpenaren kasu zehatza aukeratu dugu, gai interesgarria iruditzen zaigulako eta, lanaren atal teorikoan azalduko dugun bezala, arlo horrek ez duelako orain arte arreta handirik jaso itzulpen-ikasketen baitan.

Gure helburua lortzeko, alemanera zeharka itzulitako euskarazko literatur lanak biltzen dituen katalogo edo corpora eratu dugu (ik. 1. Eranskina) eta katalogo horren azterketa izango da gure lanaren muina.

Zeharkako itzulpena hizkuntza jakin batzuetako literatur sistemek literatura esportatzeko eta inportatzeko erabiltzen duten tresna izan ohi da. Fenomeno hau hizkuntza gutxitu eta gutxiagotuen baitan gauzatzen da batez ere, lanean azalduko dugun hainbat ezaugarriengatik. Lehenik eta behin, zeharkako itzulpena zer den, zergatik sortzen den eta bere baitan zer dinamika gertatzen diren ulertzea ezinbestekoa da, euskal literatur-polisisteman zeharkako itzulpenak duen pisuan gehiago sakondu aurretik; horri esker, gure ikerketa-subjektuari buruzko ikuspegi zabalagoa izango dugu. Era berean, zeharkako itzulpena aztertzea ezinbestekoa da itzulpen-ikasketen esparruan, agerian uzten baititu bestela inola ere hauteman ezingo genituzkeen literatur sistemen ezaugarriak.

Hitz gakoak: itzulpengintza, zeharkako itzulpena, zubi-hizkuntza, literatur-polisistema, literaturarteko komunitate espezifiko (LKE)

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Zeharkako itzulpena: definizioak, arrazoiak eta barne-dinamikak	3
3. Zeharkako itzulpena euskal literatur-polisisteman	6
3.1. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa	6
3.2. Zeharkako itzulpena euskal literaturan	7
4. Literatur itzulpena euskara-alemana norabidean	9
4.1. Alemanaren egoera soziolinguistikoa	9
4.2. Alemana-euskara eta euskara-alemana norabideetan itzultitako literatura	9
5. Metodologia	12
6. Zeharkako literatur itzulpena euskara-alemana norabidean: datu orokorrak ..	14
7. Katalogoaren azterketa	15
7.1. Kronologia.....	15
7.1.1. Mendeen arabera bilakaera	15
7.1.2. Urteen arabera bilakaera	16
7.1.3. Urteen arabera bilakaera zuzeneko itzulpenekin alderatuta	17
7.1.4. Zeharkako itzulpena argitaratu bitarteko denbora	18
7.2. Argitalpen kopurua.....	19
7.3. Generoak	20
7.4. Autoreak	21
7.5. Zubi-hizkuntzak	22
7.6. Itzultzaileak	23
7.7. Argitaletxeak	25
8. Ondorioak	26
9. Bibliografia	30

Taulen aurkibidea

1. Taula. Zeharkako itzulpenari erreferentzia egin diezaioketen terminoen hautaketa, ingelesez..... 4

Irudien aurkibidea

1. Irudia. Euskal literaturako itzulpen gehien dituzten hizkuntzak, sarrera kopuruaren arabera (Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa) 11
2. Irudia. Euskara-alemana norabidean itzultzeko erabilitako modalitateak, Euskal Literatura Itzuliaren katalogoaren (ELI) (ezkerrean) eta NorDaNor datu-basearen (eskuinean) arabera 14
3. Irudia. Mende bakoitzean argitaratutako zeharkako itzulpen kopurua, ehunekotan .. 15
4. Irudia. Zeharkako itzulpenen argitalpen-kopuruaren bilakaera 16
5. Irudia. Zeharkako itzulpenen argitalpen-kopuruaren bilakaera, zuzeneko itzulpenekin alderatuta..... 17
6. Irudia. Jatorrizko lana argitaratu zenetik, itzulpena zenbat denbora geroago argitaratu den..... 18
7. Irudia. Gehien itzuli diren lanak, ehunekotan 19
8. Irudia. Gehien itzuli diren generoak, ehunekotan 20
9. Irudia. Autore itzulienak, ehunekotan..... 21
10. Irudia. Itzulpenetan erabilitako zubi-hizkuntzak, ehunekotan 22
11. Irudia. Gehien itzuli duten itzultzaileak, ehunekotan 23
12. Irudia. Lan gehien argitaratu dituzten argitaletxeak, ehunekotan..... 25

Eranskinen aurkibidea

1. Eranskina. Euskaratik alemanera zeharka itzulitako literatur lanen katalogoa.....33

1. Sarrera

Azken urteotan, itzulpen-ikasketak ugaritzeari eta finkatzeari esker, ikerketa-ildo berriak sortu dira itzulpengintzaren esparruan. Horien adibidea da zeharkako itzulpena; izan ere, itzulpengintzaren esparruan garrantzi historikoa izan duen arren, orain dela gutxi arte ez da hasi itzulpen-ikasketetan merezi duen garrantzia irabazten. Azken urteotan, euskal itzulpengintzaren ikerketa-esparrua ere zabaltzen hasi da, eta Gradu Amaierako Lan honetan gure ekarpena egin nahi izan dugu euskal itzulpengintzaren errealitatearen ezagutzan sakontzeko eta euskal literatura beste hizkuntzetara, gure kasuan, alemanera, nola itzuli den hobeto ulertzeko.

Lan honen helburua euskal literatur-polisisteman zeharkako itzulpena zergatik gertatzen den aztertzea da, horren baitan gertatzen diren dinamikak azaltzea eta euskara-alemana norabidean egindako zeharkako itzulpenen historia deskribatzea, lan horiek bilduz eta hainbat aldagai aztertuz: zer itzuli den, noiz itzuli den, nork itzuli duen, nor itzuli den, etab. Horrek, zeharkako itzulpenaren arrazoiei eta joerei buruzko ikuspegi orokorra emateaz gain, euskal itzulpengintzaren ezagutzan sakontzea ahalbidetuko digu, Manterola (2011, 2012), Sanz-Villar (2014), Zubillaga (2014), Arancón (2020) eta Babiano (2021) bezalako beste egile batzuek hasitako bidean aurrera jarraitu ahal izateko.

Goian aipatutako egile guztiek euskal itzulpengintzaren ezagutzan sakontzen duten lanak burutu dituzte. Manterolak, adibidez, euskal literatura itzulia aztertu zuen bi lanetan (2011, 2012). Arancónek (2020) euskarara itzultako alemanezko literatur lanak aztertu zituen, eta Zubillagak (2014) norabide horretan itzultako haur- eta gazte-literaturaren corpus bat osatu zuen; Sanz-Villar (2014), berriz, fenomeno linguistiko batean zentratu zen: unitate fraseologikoen itzulpenean. Azkenik, Babianok (2021), euskaratik alemanera itzultako literatur lanen ikuspegi kulturala azpimarratu zuen.

Gure helburua betetzeko, lehenik eta behin, lanaren atal teorikoari ekingo diogu zeharkako itzulpena zer den, zer arrazoi orokorreatatik gertatzen den eta haren barne-dinamikak zeintzuk diren azaltzeko. Ondoren, zeharkako itzulpena euskal literatur-polisistemaren kasu zehatzean zergatik gertatzen den aztertuko dugu, baita horren baitako joerak ere, euskaratik alemanera egindako literatur itzulpenen testuinguruan. Horretarako, ezinbestekoa da euskararen eta alemanaren errealitate soziolinguistikoaren berri ematea.

Jarraian, guk eratutako katalogo baten bidez, euskaratik alemanera egindako zeharkako itzulpenen ezagutzan sakonduko dugu. Metodologiaren atalean azalduko dugun bezala, katalogoko zenbait ezaugarri erreparatuko diogu bereziki (zer, noiz, nork, etab.), garrantzitsutzat jo ditugun eta lehen aipatu ditugun aldagaiak gertutik aztertzeko.

Katalogoa aztertu eta gure analisiaren emaitzak azaltzen lagunduko diguten grafikoetako datuak interpretatu ondoren, ondorio nagusiak plazaratuko ditugu, bai eta zenbait gogoeta eta etorkizunerako balizko ikerketa-ildoak proposatuko ere.

Egingo dugun katalogoaren analisiaren emaitzei dagokienez, aldez aurreko hainbat hipotesi ditugu, eta interesgarria izango da beteko diren ala ez egiaztatzea. Mahaiaren gainean jartzen dugun lehenengo hipotesia zubi-hizkuntzei buruzkoa da. Uste dugu, lanean aipatuko ditugun euskal literatur-polisistemaren ezaugarriak direla eta, gaztelania izango dela gehien erabilitako zubi-hizkuntza, eta haren atzetik etorriko dela frantsesa; azken horrek ere pisu nabarmena izango duela uste dugu. Bilakaera kronologikoari dagokionez, zeharka itzultako lanek zuzenean itzultakoen kopurua gaitutuko dutela pentsatzen dugu; izan ere, interesatzen zaigun norabidean itzulpen-merkatua behar bezain garatuta ez dagoelakoan gaude. Gure azken hipotesia da Bernardo Atxaga izango dela alemanez euskal autorerik itzuliena, bera baita euskal idazlerik sarituenetako eta nazioartean ezagunenetako bat.

2. Zeharkako itzulpena: definizioak, arrazoiak eta barne-dinamikak

Dictionary of Translation Studies hiztegiaren arabera, jatorrizko testu batetik zuzenean ez, baizik eta beste hizkuntza bateko bitarteko itzulpen baten bidez itzultzeko prozedura da zeharkako itzulpena (Shuttleworth, 2014: 76). Hala ere, zeharkako itzulpenari buruzko ikerketak biltzen dituen IndirecTrans web atariak¹ zehazten duenez, tarteko bertsio bakarrari edo itzultitako hainbat bertsiori erreferentzia egin diezaiekegu, itzulpen-prozesuan tarteko hizkuntza bat baino gehiago egon daitekeelako (Maia, Pięta, 2017). Sanz-Villarrek (2018: 146) ideia berbera aurkezten digu «zeharkako itzulpen konpilatuei» buruz hitz egiten duenean.

Definizioak alde batera utzita, kontsultatutako literatura bat dator honekin: zeharkako itzulpenak arreta gutxi jaso du itzulpen-azterketen esparruan duela gutxira arte, azkenaldian gai horri buruzko azterlan, ekitaldi eta ikertzaile-sare berriak sortu diren arren (Maia, Pięta, Rosa, 2017: 113). Zeharkako itzulpenaren inguruko interes mugatua publiko orokorrak praktika honekiko duen iritzi negatiboaren ondorioa izan daiteke (Ringmar, 2007: 1). Ikerketa eskasia hori paradoxikoa da, Maia, Pięta eta Rosa (2017: 113) autoreen arabera zeharkako itzulpenak itzulpengintzaren historian garrantzi handia izan duelako², baita etorkizun oparoa ere, globalizazioaren eta nazioarteko erakundeetako lan-hizkuntza kopuru handien ondorioz.

Esparru honek jaso duen arreta eskasaren erakusgarri bat gehiago dira itzulpen-praktika honi erreferentzia egiteko existitzen diren terminologia-desadostasunak. Ondorengo taulan ikergaiari buruz aritzeko terminoen hautaketa bat jaso dugu.

¹ www.indirectrans.com

² ik., adibidez, Bibliaren itzulpena, mendebaldeko kulturaren funtsezko testua, latinera grezierazko tarteko itzulpen batetik itzuli zena, eta ez hebreera eta arameiera bezalako jatorrizko hizkuntzetatik (Gambier, 2003b: 58); edo Toledoko Itzultzaileen Eskola, non arabieratik gaztelaniara itzultitako ezagutzak Europako hainbat hizkuntzatarara zabaldu ahal izan ziren, gaztelaniazko itzulpenak bitarteko testu gisa erabiliz (Gambier, 2003b: 62).

Terminoak	Adibidearen iturria
compilative translation	Popovič (1976)
double translation	Edström (1991: 11)
electic translation	Ringmar (2007: 3)
indirect translation	Špirk (2014: 137)
intermediate translation	Toury (1988: 139)
mediated translation	Linder (2014: 58)

1. Taula. Zeharkako itzulpenari erreferentzia egin diezaieketen terminoen hautaketa³, ingelesez (Maia, Pięta, Rosa, 2017: 115)

Ikerketa honetan ikergaia zeharkako itzulpen izendatzea erabaki dugu, Ringmarrek (2007: 3) ematen dituen datuen arabera ingelesezko *indirect translation* aukera ikerketetan gehien erabiltzen den terminoa baita. Gainera, autore berak dioen moduan, *indirect translation* terminoa erraz itzultzen da hizkuntzen artean (zeharkako itzulpen euskaraz; *traducción indirecta* gaztelaniaz; *traduction indirecte* frantsesez; etab.) eta antonimo nabarmena du: *direct translation* (zuzeneko itzulpen) terminoa.

Zeharkako itzulpenaren praktika literaturan gauzatzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke: xede- edo jatorrizko-hizkuntzaren gaitasun linguistikorik edo itzultzailezik ez izatea, edo jatorrizko testua lortzeko zailtasunak izatea, edo geografikoki edo linguistikoki urrun dagoen hizkuntza batetik itzultzeko zailtasunak izatea (Maia, Pięta, Rosa, 2017: 114). Horregatik guztiatik, bitarteko hizkuntzak (*zubi-hizkuntzak*, aurrerantzean) erabiltzera jotzen da, bai eskuragarritasun fisikoari (testuak lortzea) bai eskuragarritasun kognitiboari (jokoan dauden hizkuntzekin aritzeko gai diren profesionalak lortzea) dagokionez, errazagoa eta merkeagoa delako (Domínguez, 2008: 179).

Maia, Pięta eta Rosa (2017: 114) autoreek hizkuntzen, kulturen eta itzulpen-sistemaren barruko eragileen arteko botere-harremanak ere aipatzen dituzte zeharkako itzulpenen arrazoi gisa. Izan ere, hizkuntzen arteko harremana ez da homogenea,

³ Jatorrizko taulan, soilik prozesuari, soilik xede-testuari edo biei erreferentzia egin diezaieketen terminoak agertzen dira. Espazio-arrazoiak direla eta, taula honetan soilik biei, eta ez horietako bati bakarrik, erreferentzia egin diezaieketen terminoak baino ez dira agertzen.

asimetrikoa baizik. Zubi-hizkuntza (Literaturarteko komunitate espezifiko -LKE⁴- baten hizkuntza nagusia izan ohi dena) literatur-polisistema⁵ indartsu baten hizkuntza da, oro har (Domínguez, 2008: 184). Horregatik, LKEko hizkuntza periferikoek, hizkuntza zentralarekiko desoreka-egoeran egonik, hizkuntza zentrala zubi-hizkuntza gisa erabiltzen dute, jatorrizko-hizkuntzatik edo xede-hizkuntzara itzulpenak egiteko behar diren baliabideak dituelako eta aurrea hartu ohi duelako (Domínguez, 2008: 180).

Bestalde, zeharkako itzulpenaren praktika gertatzen denean, itzulpen-prozesua ez da aldatzen zuzeneko itzulpenaren aldean, honen oso antzekoa edo berdina baita. Horregatik dio Domínguezek (2008: 177-178) modalitate baten eta bestearen arteko bereizketa ez dagoela prozesuan, «irudien, kulturen arteko harremanen eta polisistemen esparruan» baizik. Testuaren ezaugarriak ezaugarri horiek jada egokitu dituen zubi-polisistema batek baldintzatzen ditu. Beraz, aldaketa linguistikoez gain, egiturazkoen edo ideologikoen ere ari gara.

⁴ Đurišinek (1993) proposatutako terminoa. LKEa hainbat literaturaren arteko harremana definitzen duen komunitatea da. Komunitate horretan parte hartzen duten literaturak, oro har, ez dira posizio berean egoten: batzuek besteek baino indar handiagoa dute; izan tamainagatik, ekoizpenaren dimentsioagatik edo zabalkundeagatik, LKEko kideek ez dituzte LKEtik kanporako beste kide batzuekin komunitate barruko harreman berak izaten. Manterolaren (2011: 70) esanetan, Espainiako estatuko literatura ezberdinek LKE propioa osatzen dute, non gaztelaniazko literatura hegemonikoa den, eta besteak (euskara, katalana, galiziera, etab.) bigarren maila batean geratzen diren.

⁵ Even-Zoharrek (1990: 9-26) proposatutako terminoa. Polisistemak sistemak baino kontzeptu zabalagoak ditu ikertzaileak eta haien arteko harremanak dinamikoak eta heterogeneoak direla irizten du. Modu horretara, kultur produkzioa aztertzeke kontzeptu aproposa izan da giza zientzietan (itzulpen-ikasketen diziplinan barne). Hain zuzen ere, kultura baten baitako zentroan eta periferian dauden elementuak aztertzeke aukera ematen du, baita kulturen arteko harreman konplexuak identifikatzeko ere.

3. Zeharkako itzulpena euskal literatur-polisisteman

Manterolak (2012: 118) esaten duen bezala, «[Euskal literaturan] nahiko arrunta izaten da kanporako bidea zeharkako itzulpenen bitartez egitea». Zeharkako itzulpenaren ezaugarri orokorrak azaldu ditugunez, atal honetan Euskal Herriko literatur-polisisteman egindako zeharkako itzulpenaren praktikan sakonduko dugu, horren arrazoiak eta barne-dinamikak aztertu ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa da Euskal Herriko testuingurua kontuan hartzea, aurreko atalean esan dugun bezala, zeharkako itzulpena eta hizkuntza bakoitzaren errealitatea elkarri hertsiki lotuta baitaude.

3.1. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa

Zeharkako itzulpena Euskal Herria bezalako leku batean gauzatzea ez da kasualitatea. Horren arrazoiak ulertzeko, beharrezkoa da hizkuntzaz kanpoko faktoreei erreparatzea, hala nola, gauzatzen den lekuko egoera soziolinguistikoari eta egoera horrek tokiko literatur-sisteman duen eraginari.

Euskara Euskal Herria osatzen duten herrialdeen hizkuntza da. Hizkuntza isolatua denez (hau da, beste ezein hizkuntzarekiko ahaidetasun genetiko ezagunik ez duenez), eta XVI. mendera arte dokumentatutako testigantza idatzirik apenas dagoenez, zaila da euskararen historia zehaztea (Echenique, 2006: 26); horren eraginez, hizkuntzaren jatorriari buruzko hainbat teoria⁶ ere badira.

Zabaletaren (2019: 125) arabera, euskararen historia ezaguna atzerakada baten historia da, euskal hizkuntzak eremu geografiko eta soziala galdu izanaren historia;

⁶ R.L. Trask-ek, «*Origin and Relatives of the Basque Language: Review of the evidence*» (1995) artikuluan, euskararen jatorriari buruz dauden edo izan diren teoria nagusiak jasotzen ditu. Egileak dioen bezala, teoria batzuek beste batzuek baino balio zientifiko handiagoa dute, eta, batzuk oraindik ikertzen ari diren bitartean, komunitate zientifikoak beste batzuk baztertu egin ditu. Hona hemen autoreak jasotzen dituen teoria garrantzitsuenak:

1. *Old european* teoriaren arabera, kontinenteko lehen biztanleek Europa osoan hitz egiten zuten hizkuntza hipotetiko bakar batekin ahaidetuta egongo litzateke euskara.
2. Beste teoria batzuek harreman genetiko minoikoa, etruriarra, piktoera edo sumeriera bezalako hizkuntzekin aurkitzen saiatu dira (guztiak baztertuak izan dira).
3. Jatorri kaukasiarraren teoriaren arabera -hipotesirik aztertuena-, euskara Kaukasoko hizkuntzen multzoarekin lotuta egongo litzateke.
4. Akitanierarekin lotzen duen teoriaren arabera -fruituak eman dituen hipotesi bakarra-, akitaniera euskararen arbaso zuzen hurbilena izango litzateke.
5. Azkenik, euskara Afrikako iparraldeko hizkuntzekin lotzen duten teoriak ditugu, iberiera eta euskara hizkuntza bera zirela eta horiek iberiar penintsulara Afrikako iparraldetik sartu zirela defendatzen dutenak. Zenbait ikertzailek antzekotasun lexikoak aurkitu zituzten euskararen eta berber hizkuntzaren artean, baina hipotesi horiek baztertuak izan dira.

horretarako arrazoiak euskararen erabileraren aurkako errepresioa, zentsura eta hizkuntzaren izen ona galtzea izan dira, besteak beste.

Hala ere, euskara sustatzeko hizkuntza-politikei esker, Euskal Herrian euskaldun aktiboak 1991n % 22.3 izatetik 2016an % 28.4 izatera igaro dira, *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren* (2016) arabera; hau da, 751.427 hiztun aktibo ditugu orain. Beraz, herrialdeen arabera neurketa desberdinetan, euskal gizartea gizarte elebiduna dela egiazta dezakegu (euskara eta gaztelania hitz egiten ditugu estatu espainiarrean kokaturiko euskal herrialdeetan eta euskara eta frantsesa estatu frantsesean kokaturiko euskal herrialdeetan). Hala ere, hizkuntzaren erabilerari erreparatzen badiogu, egiazta dezakegu % 83.4k erdaraz euskaraz baino gehiago hitz egiten duela (horien artean daude euskaraz oso gutxi edo batere ez mintzatzen direnak), eta % 16.6k besterik ez duela euskaraz erdaraz baino gehiago edo bezainbeste hitz egiten. Beraz, ez gara erabateko elebitasunaz ari, elebitasun asimetrikoaz baizik.

3.2. Zeharkako itzulpena euskal literaturan

Euskal literatur-polisistemaren gabeziak (lehen aipatutako gabezia fisikoak eta kognitiboak, azaldu berri dugun elebitasun asimetrikoa, LKEetako hizkuntza nagusien eta sistemen presentzia oso nabarmena, etab.) direla eta, euskara hizkuntza nagusiekiko gutxiagotasun-egoeran dago eta, horregatik, euskal literatur-sistemak harreman estua izango du LKE horietan nagusi diren hizkuntzekin (Manterola, 2012: 118). LKEtik kanpoko beste hizkuntza batzuetara itzultzean, hizkuntza gutxituaren eta hizkuntza nagusiaren arteko harreman estu hori zeharkako itzulpenean islatzen da.

Manterolak (2011: 59) dioenez, euskal literatura ez da XX. mendearen amaierara arte estandarizatu. Euskararako itzulpenak lagundu du literaturaren normalizazio horretan, eta baita euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeak ere. Azken urteotan, euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeari ekin zaio, eta orduan azalatu dira aurreko paragrafoan aipatutako sistemaren gabeziak. Beraz, euskarak, literatura beste hizkuntza batzuetara esportatzeko ezgai, zeharkako itzulpenera jo du, euskarak parte hartzen duen LKEetako hizkuntza nagusiak zubi hizkuntza gisa erabiliz: gaztelania eta frantsesa.

Gaur egun, zeharkako itzulpenaren praktikarik ez balego, baliteke kultura gutxituen arteko harremanik ez existitzea edo denbora gehiago behar izatea harreman hori gauzatzeko. Euskal literaturaren kasuan, ia ezinezkoa litzateke beste hizkuntza gutxitu

batzuetara edo urruneko hizkuntzetara itzulpenak egitea bitartekaritza hori gabe (Manterola, 2011: 76). Horregatik, literatur sorkuntza esportatzeko bide errazik ez duten hizkuntzentzat (euskararen kasuan gertatzen den bezala), zeharkako itzulpenak LKEaren mugak gainditu ahal izateko eta publiko zabalagoarengana iristeko tresna dira.

Hala ere, komenigarria da zeharkako itzulpenaren fenomenoaren etengabe behatu eta berrikustea. Alde batetik, itzulpen batek jatorrizkoak baino aintzatespen handiagoa lor dezake, eta, beraz, beste hizkuntzetako literatur-polisistemek itzulpen horretatik abiatuta egingo dituzte gainerako itzulpenak. Arrazoia lehenengo xede-hizkuntzaren izen on handiagoan datza. Kasu horietan, hirugarren polisistema-literarioak egindako zeharkako itzulpenaren erreferentziak zubi-testura mugatzen dira, idazleak lana lehenengo xede-hizkuntzan idatzi izan balu bezala. Beraz, zubi-itzulpenak jatorrizko obra balitz bezala funtzionatzen du, eta hari egozten zaizkio testuak transmititzen dituen irudiak, ideiak eta abar (Domínguez, 2008: 178-179).

Bestalde, Pérezek (2014: 122) dioenez, zeharkako itzulpenaren praktika sistematizatzeko arriskua dago, eta horrek ondorio negatiboak ekar diezazkioke jatorrizko literatur-polisistemari. Izan ere, sistema zentralaren mende geratu daiteke, sistema zentralak jatorrizko literatura beste hizkuntzatarara transmititzeko bitarteko bakar gisa funtziona dezakeelako, bai eta jatorrizko literatur-lanen legitimatzaile gisa ere. Beste hitz batzuekin esateko, zeharkako itzulpena sistematizatzen denean, zubi-literaturak jatorrizko literaturaren lanak hautatzen dituen iragazki gisa funtzionatzen du, eta, orduan, aurretiaz aukeratutako lanek besterik ez dituzte LKEko mugak gaindituko (Domínguez, 2008: 182-183), euskarazko literatur-polisisteman antzeman dezakegun bezala.

4. Literatur itzulpena euskara-alemana norabidean

Jarraian, euskaratik alemanera egindako literatur itzulpenaren egoeraren zertzelada batzuk eskainiko ditugu, zeharkako itzulpen prozesuak testuinguru horretan duen garrantzia hobeto ulertzeko garrantzitsua delakoan. Horretarako, alemanaren egoera soziolinguistikoa azalduko dugu labur-labur, eta alemana-euskara norabidean eta lantzen ari garen norabideko literaturaren itzulpenari buruzko zenbait datu eskainiko ditugu.

4.1. Alemanaren egoera soziolinguistikoa

Alemana ehun milioi hiztun inguruk hitz egiten duten mendebaldeko germaniar adarreko hizkuntza da, jatorri indoeuoparrekoa, mundu osoan gehien hitz egiten denetakoa.

Ofizialtasun estatusa du eta gehien hitz egiten den hizkuntza da Alemanian, Austrian, Suitzan, Luxenburgon eta Liechtensteinen; ofizialtasun estatusa du baina ez da gehien hitz egiten den hizkuntza Belgikan eta beste herrialde batzuetako probintzia edo eskualde batzuetan, hala nola Italian edo Polonian.

Hainbat herrialdeetako hizkuntza ofiziala eta nagusia izateaz gain, alemana garrantzi handikoa da nazioarteko erakundeetan; Europar Batasunean, esaterako, ama hizkuntza gisa hiztun gehien dituen hizkuntza da (Europako Batzordea, 2012: 10). Alemaniarraren idatzizko tradizio luzeak, IV. mendean hasi zenak⁷, alemanezko literatur-polisistema gaur egun nazioartean ditugun indartsuenen artean kokatzen du.

4.2. Alemana-euskara eta euskara-alemana norabideetan itzulitako literatura

Euskal literaturatik alemanera egiten den zeharkako itzulpenaren fenomeno bera hobeto ulertzeko, uste dugu ezinbestekoa dela norabide horretako itzulpenaren ikuspegi orokorra izatea. Are gehiago, uste dugu interesgarria izan daitekeela, azaletik bada ere, euskarara itzuli den alemaniar literaturaren inguruko zeinbat ideia batzea. Horretarako, gure aztergai sakontzen lagunduko diguten gaiari buruzko zenbait datu azalduko ditugu jarraian.


⁷ Ulfila apezpikuaren Biblia Gotikoaren itzulpenarekin (Jaeger, 1998).

Lehenik eta behin, Arancónek (2020: 9) dioen moduan, itzulpenek euskal literaturaren historia laburrean lanak esportatzeko eta inportatzeko orduan izan duten garrantzia azpimarratu behar da, alemana edo ingelesa bezalako hizkuntzekin gertatzen ez den bezala; horien kasuan, itzulpenen ehuneko oso txikia da literatur ekoizpen osoaren kopuruarekiko; euskal literatur sistema, berriz, nabarmen garatu eta hedatu da itzulpenen esker.

Gure ikerketa-subjektura hurbiltzeko, alemanezko literaturatik euskarara egiten den itzulpenaren errealitatea ere kontuan hartu behar dugula uste dugu, ikuspegi orokorragoa izateko. Arancónek (2020: 15) biltzen dituen datuen arabera, alemana izan zen, 2009ra arte, literatur lanak euskaratzeko laugarren jatorrizko hizkuntza nagusia: guztizkoaren % 8.4 (nahiko kopuru nabarmena). Garaiari dagokionez, XXI. mendean argitaratu dira euskarara itzulitako alemaniar literatur-lan gehienak: % 59, XX. mendean argitaratu ziren % 41en aldean. Urtez urteko bilakaera historikoari dagokionez, itzulpenen fluxua oso aldakorra dela ikus dezakegu, eta gorabehera asko antzeman daitezke; beraz, pentsa dezakegu itzulpen-merkatua oraindik ez dagoela behar bezain finkatuta. Azkenik, literatur generoari dagokionez, ikerketan azaltzen diren datuen arabera, alemanetik gehien itzulitako literatur generoa haur eta gazte literatura (HGL) da, guztizkoaren % 70.06, atzetik eleberriak (% 11.81) eta saiakerak (% 11) dituela.

Gure azterlanaren hizkuntza-norabideko itzulpenari dagokionez (euskara-alemana, alegia), Manterolak, *La traducción de la literatura vasca a otras lenguas* (2011) lanean, euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenen ikerketa burutu zuen, horretarako katalogo bat abiapuntutzat hartuta. Ikerketa horretan ikus dezakegunez, argitaratu zen egunera arte (2011, hain zuzen ere) 38 hizkuntzatarara itzuli zen euskarazko literatura. Horien artean, euskaratik gehien itzulitako zazpigarrena zen alemana, gaztelaniaren, katalanaren, ingelesaren, galizieraren, frantsesaren eta italieraren atzetik. Gainera, urte horretara arte, 10 euskal autore baino gehiagoren lanak itzuli zituen hizkuntzetako bat ere bazen (zazpigarren postuan, 11 autorerekin), atzetik errusiera zuela (10 autorerekin).

2021eko martxoaren 1ean egindako Euskal Literatura Itzuliaren katalogoaren (ELI)⁸ azken eguneraketaren arabera, egiazta dezakegu euskarazko literatura 50 hizkuntzatarara itzuli dela, eta alemanak zazpigarren hizkuntza izaten jarraitzen duela. ELI katalogoak biltzen dituen 1751 sarreretatik (berrargitalpenak kontuan hartuta), 40 (% 2.28) alemanera itzuli dira.



1. Irudia. Euskal literaturako itzulpen gehien dituzten hizkuntzak, sarrera kopuruaren arabera (Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa)

⁸ <http://ehu.eus/ehg/eli/>

5. Metodologia

Lan honen helburu nagusia euskal literatura itzuliaren ezagutzan sakontzea da. Beraz, katalogoak edo azterketa konparatiboak burutu dituzten Manterola (2011, 2012), Sanz-Villar (2014), Zubillaga (2014), Arancón (2020) eta Babiano (2021) bezalako egileen urratsei jarraitzen dien lana egin nahi izan dugu. Hala ere, gure ikerketaren berezitasuna da euskal literaturaren zeharkako itzulpenean jartzen duela arreta (euskara-alemana norabidean, zehazki), ez baitugu horretan sakontzen duen ikerketarik aurkitu.

Euskaratik alemanera zeharka itzuli den literaturaren analisia egiteko, lehen urratsa katalogo bat eratzea izan da, datuak kudeatu eta kontserbatzeko funtsezko tresna. Katalogo bat osatzea erabaki dugu, bilatzen ari garen datuak aurkitzea errazten duen oso tresna bisuala izateaz gain, analisisien kalitatea eta produktibitatea hobetzen duelako. Katalogoak jasotzen dituen xehetasun guztietatik, gure analisia egiteko honako hauei erreparatuko diegu beren-beregi:

- bai jatorrizko testuaren argitalpen urtea, bai xede-testuaren argitalpen urtea: zeharka itzultzeko ohitura mendez mende eta urtez urte aldatu den jakiteko eta jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean zenbat denbora igaro den jakiteko;
- jatorrizko lanaren izenburua: zeharka euskarazko zein lan itzuli diren jakiteko;
- generoa: zeharka zein genero itzuli diren jakiteko;
- egilea: zeharka zein euskal autore itzuli diren jakiteko;
- zubi-hizkuntza(k): bitarteko gisa zein hizkuntza erabili diren jakiteko;
- itzultzailea: euskal egileen lanak zeharka nork itzuli dituen jakiteko;
- xede-hizkuntzako argitaletxea: alemanera zeharka itzultitako lanak zein argitaletzek argitaratu dituzten jakiteko.

Gure katalogoa eratzeko bi iturritatik jaso ditugu datuak: ELI katalogoa eta EIZIEren NorDaNor datu-basea. Hala ere, iturri bakoitzaren irizpideak ez dira berdinak,⁹ beraz, esan behar dugu gure helburua ez dela erabilitako informazio-iturriak alderatzea, baizik eta ahalik eta katalogo zabalena osatzea eta datu gehien biltzea. Katalogoaren analisiaren atalean azalduko ditugun datuak guk osatutako katalogotik eskuratuko ditugu. Katalogo hori osatzeko, aipatu ditugun iturrietako informazioa bilduko dugu.

⁹ Kontuan izan behar dugu ELI katalogoan berrargitalpenak (hau da, argitaletxe berak berrargitaratutako lanak) ere islatzen direla, NorDaNor datu-basean ez bezala. Hala ere, ELI katalogoak 792 izenburu original dituela zehazten du, eta NorDaNor datu-baseko 821etatik hurbilago dago zifra hori.

Lehen iturria Elizabete Manterolak 2012an Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) aurkeztutako tesian oinarritzen den Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI) da, 2021eko martxoaren 1eko bertsio eguneratuaren arabera. Katalogo horretan bilaketa egiteko, lehenik eta behin, «hizkuntza» laukia markatu dugu eta «alemana» hautatu dugu aukeren zerrenda zabalgarrian. Katalogoak erakusten dituen sarrera guztietatik, itzulpen-modalitatea zeharkakoa izan dela adierazten dutenak bildu ditugu. Katalogoa 2021eko apirilaren 20an kontsultatu genuen azken aldiz.

Kontsultatu dugun bigarren iturria 2014an euskal itzulpengintzari buruzko informazioa zabaltzeko asmoz aurkeztu zen EIZIEren (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte)¹⁰ NorDaNor datu-basea¹¹ da. Datu-basean bilaketa egiteko, lehenik eta behin, «testu-mota» zabalgarrian «Literatura» hautatu dugu, eta, ondoren, hizkuntza-zehaztapenak mugatu ditugu: «jatorrizkoaren hizkuntza» zabalgarrian «euskara» hautatu dugu, eta «xede hizkuntza» zabalgarrian, berriz, «alemana». Datu-baseak erakusten dituen sarrera guztietatik, zubi-hizkuntzak erabili izan dituztela adierazten dutenak bildu ditugu. Datu-basea 2021ko apirilaren 20an kontsultatu genuen azken aldiz.

Gure katalogoa eratzeko erabili ditugun bi iturrien abantaila nagusia da itzulpen-modalitatea (zuzenakoa edo zeharkakoa) zein izan den jasotzen dutela. Datu esanguratsua da iturriek irizpide honi garrantzia ematen diotela, zeharkako itzulpenak euskara bezalako hizkuntzetan duen garrantziaren eta aipatutako ikerketa-esparruan azkenaldian irabazi duen arretaren seinale. Zeharkakoaren kasuan, erabilitako zubi-hizkuntza(k) zein izan den/diren zehazten dute; horrek datuak biltzeko lana arintzen du eta, gainera, itzulpen-modalitatearekin lotutako irizpidea gurean gero eta garrantzitsuagoa dela erakusten digu. Halaber, garrantzitsua da aipatzea bi iturriak urtero eguneratzen direla.


Katalogoa eratzeko UNESCOren Index Translationum datu-basea ere erabiltzeko asmoa genuen. Hala ere, haren webgunea kontsultatu genuen azken egunean, 2021eko apirilaren 20an, alegia, sistemak mantentze-lanetan jarraitzen zuen; beraz, ezin izan ditugu, zoritxarrez, datu-base horretan jasotako datuak eskuratu.

¹⁰ Modu profesionalean diharduten zein itzulpengintzako goi-mailako ikasketak dituzten itzultzaileak, interpreteak eta zuzentzaileak batzen dituen irabazi-asmorik gabeko elkarte da. 1987an sortu zen ondorengo helburuekin: itzulpengintzaren inguruko informazioa bildu eta zabaltzea, *Senez* aldizkaria urtean behin argitaratzea, prestakuntzarako saioak antolatzea, profesionalen lan-baldintzei kasu egitea eta itzulpengintzak euskarari egiten dion ekarpenaz jabetzeko saioak antolatzea, besteak beste (EIZIE, 2020).

¹¹ <http://nordanor.eus/>

6. Zeharkako literatur itzulpena euskara-alemana norabidean: datu orokorrak

Lehen adierazi dugun bezala, Euskal Literatura Itzuliaren katalogoan (ELI) euskaratik alemanera egindako itzulpen kopurua euskaratik egindako itzulpen guztiarekiko % 2.28 da, katalogoko 40 sarrera dituela. NorDaNor datu-basearen arabera, bestalde, euskaratik alemanera egindako itzulpen kopurua guztiarekiko % 3.41 da, katalogoko 28 sarrera dituela. Ondorengo grafikoetan, euskaratik alemanerako zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko aldea ikusiko dugu, bi iturri hauen arabera:



2. Irudia. Euskara-alemana norabidean itzultzeko erabilitako modalitateak, Euskal Literatura Itzuliaren katalogoaren (ELI) (ezkerrean) eta NorDaNor datu-basearen (eskuinean) arabera

ELI katalogoko grafikoan ikusten dugun bezala, euskaratik alemanera itzultzeko erabili den modalitate nagusia zeharkakoa da, 19 sarrerekin, guztizkoaren % 47.16 sarrera dituela, zuzeneko itzulpenak % 40 suposatzen du. Azkenik, 5 sarreretan (% 12.50) itzultzeko modalitatea zehaztu gabe dago.


NorDaNor datu-baseko grafikoan irudikatzen denez, zeharkako itzulpenak 9 sarrerei eragiten die euskara-alemana norabidean, eta guztizkoaren % 32 islatzen du. Gainerako 19 sarrerek % 68 suposatzen dute. ELI katalogoaren eta NorDaNor datu-basearen arteko aldea ulertzeko, kontuan izan behar dugu NorDaNor datu-baseak multzo berean sailkatzen dituela zuzenekoak eta zehaztu gabekoak; beraz, ezin ditugu zuzenean itzulitakoak eta zehaztu gabekoak bereizi, ELI katalogoan egin dezakegun bezala. Gauzak horrela, NorDaNor datu-baseko datuak kontu handiz hartu beharko genituzke kontuan.

Hala ere, metodologia atalean esan dugun bezala, zehaztu behar dugu gure asmoa ez dela erabilitako informazio-iturriak alderatzea, ahalik eta katalogo zabalena osatzea eta datu gehien biltzea baizik.

7. Katalogoaren azterketa

7.1. Kronologia

7.1.1. Mendeen araberako bilakaera



3. Irudia. Mende bakoitzean argitaratutako zeharkako itzulpen kopurua, ehunekotan

Hasteko, beharrezkotzat jo dugu zeharkako itzulpenen ekoizpenak XX. eta XXI. mendeen artean izan duen bilakaera aztertzea, ekoizpen horrek denboran zehar izan dituen dinamika eta joerei buruzko informazioa eman diezagun.


Grafikoan adierazi dugun bezala, zeharkako itzulpen gehienak, % 68 (13 titulu), heren bat baino gehiago, XX. mendean argitaratu ziren; XXI. mendean, berriz, gainerako % 32 (6 titulu) argitaratu ziren.

Datu horiek zuzeneko itzulpenen argitalpenekin alderatzen baditugu, guztiz alderantzizko joera ikus dezakegu. XX. mendean zeharkako itzulpenak zeharkako itzulpen guztiekiko % 68 izan ziren bitartean, zuzeneko itzulpenak zuzeneko itzulpen guztiekiko % 18.75 baino ez ziren izan. XXI. mendean, esan bezala, zeharkako itzulpenek behera egin dute, zeharkako itzulpen guztiekiko % 32raino; zuzeneko itzulpena, berriz, zuzeneko argitalpen guztiekiko % 81.25arekin, itzultzeko metodo nagusi bihurtu da.

Esan bezala, zeharkako itzulpenen beharrezko joera eta zuzeneko itzulpenen goranzko joera antzeman dezakegu. Hori logikoa da, Domínguezek (2008: 182) dioen bezala, zeharkako itzulpena LKEko hizkuntza zentralarekiko mendekotasun sintoma baita, zuzeneko itzulpena literatur-polisistema baten garapenaren adierazgarria den neurri

berean. Hizkuntza batetik beste hizkuntza batzuetara itzultzen hasten garenean, baldin eta sistema literarioa beste hizkuntza batzuetatik egindako itzulpenari esker finkatu bada (Manterola, 2012:115), normalena da zubi-hizkuntzak bitartekari gisa erabiltzera jotzea ekoizpen literarioa esportatzeko, lan honetan zehar aipatu dugun sistema literario gazte baten gabeziak (fisikoak, kognitiboak, etab.) direla eta. Era berean, hizkuntza gutxitu batetik beste hizkuntza baterako itzulpen-dinamika zenbat eta finkatuagoa egon, orduan eta zeharkako itzulpen gutxiago izango dugu.

7.1.2. Urteen arabera bilakaera




4. Irudia. Zeharkako itzulpenen argitalpen-kopuruaren bilakaera

Grafikoan adierazitakoaren arabera, zeharkako itzulpenen argitalpenaren bilakaera hiru etapatan bana dezakegu: ekoizpen baxuko lehen etapa (1976-1990), ekoizpen altuko bigarren etapa (1991-2000) eta ekoizpen baxuko hirugarren etapa (2001-2020).

Ekoizpen baxuko lehen etapa bat dator alemanera itzuli ziren lehen literatur lanekin. Zeharka itzulitako lehen lana 1980koa da, eta zuzenean itzulitakoa 1985ekoa. Ekoizpen altuko bigarren etapa azaltzeko, Lópezek (2009: 303) aipatzen dituen itzulpen-ikasketak, EIZIE (1987), Literatura Unibertsala bilduma (1990), Pentsamenduaren Klasikoak (1992) eta itzulpengintzaren lagungarri suertatu ziren beste ekimen batzuk martxan jarri izana kontuan hartu behar dugu, beharbada. Ekoizpen baxuko hirugarren etapa, ordea, lehen etapako ekoizpen baxuaz bestelako arrazoien ondorioa da. Aurreko atalean ikusi dugunez, zeharkako itzulpenak behera egin du XXI. mendetik aurrera zuzeneko itzulpenari bide emateko; hurrengo atalean argi ikusiko dugu joera hori.

7.1.3. Urteen araberako bilakaera zuzeneko itzulpenekin alderatuta



5. Irudia. Zeharkako itzulpenen argitalpen-kopuruaren bilakaera, zuzeneko itzulpenekin alderatuta

Ikus dezakegunez, 1990-1999 hamarkadan argitaratu ziren zeharka itzulitako literatur-lan gehienak. Zuzeneko itzulpena bezala, zeharkako itzulpena ekoizpen baxuko etapa batetik zetorren. Lehenago azaldutako arrazoiak direla eta, hamarkada honetan beste hizkuntza batzuetara (alemanera barne) egindako itzulpen kopuruak gora egin zuen. Etapa honetan, ikus dezakegunez, zeharkako itzulpena ohikoena izan zen; 10 argitalpen, zuzenean itzulitako 2 argitalpenen aldean.


Hala ere, 2000-2009 hamarkadan joera hori aldatu egin zen. Hamarkada honetan itzuli ziren lan kopuru gehienak (zeharkako nahiz zuzeneko itzulpenak aintzat hartuta), eta zuzeneko itzulpena zeharkako itzulpenaren aurretik jarri zen, nahiz eta zeharkako itzulpenak ere egiten jarraitu. Izan ere, garai horretan argitaratu ziren zuzeneko itzulpen gehienak (9 zuzeneko itzulpen, zeharka itzulitako 6 argitalpenen aldean).

2010-2019 hamarkadan produkzioaren beherakada orokorra ikus dezakegu, beharbada 2008ko krisi ekonomikoaren eta Pahl Rugenstein bezalako argitaletxeen¹² gainbeheraren eraginez. Hala ere, tarte horretan itzuli ziren guztizko 6 lanetatik, 4 zuzenean itzuli ziren, eta, beraz, zuzeneko itzulpena lehenesteko joera egiazta dezakegu. 2021eko maiatzean alemanez argitaratu berri den azken euskal literatur lana ere zuzeneko

¹² 2000ko hamarkadan eta 2010eko hamarkadaren hasieran euskaratik alemanera itzulitako lanak argitaratu zituen eta zuzeneko itzulpenaren aldeko apustu nabarmena egin zuen.

itzulpen baten emaitza izan da¹³. Lehen esan dugun bezala, urteek aurrera egin ahala euskarak izan duen garapen literarioaren ondorioz azaltzen den joera-aldaketa da hori.

7.1.4. Zeharkako itzulpena argitaratu bitarteko denbora



6. Irudia. Jatorrizko lana argitaratu zenetik, itzulpena zenbat denbora geroago argitaratu den¹⁴


Grafiko honen arabera, jatorrizkoa argitaratzen denetik zeharkako itzulpena argitaratu arte, bost urte behar dira batez beste. Ikus dezakegunez, itzulpena argitaratzeko denbora gehien behar izan zuen lana Fito Rodríguezen *Faustoren itzala* da, jatorriz 2004an argitaratu baitzen, eta 2016an itzuli (12 urtera). Itzultzeko denbora gutxien behar izan zuena Harkaitz Cano eta Juan Kruz Igerabideren *Cuadernos de Villa Waldberta - Aufzeichnungen aus der Villa Waldberta* da, jatorriz 2010ean argitaratu baitzen, itzulpena argitaratu zen urte berean. Kasu honetan, hala ere, azpimarratu behar dugu Cervantes Institutuaren ekimen batez ari garela, eta aldi berean argitaratu zirela jatorrizko bertsioa eta itzulitako bertsioa.

Salbuespen puntualen bat egon badago ere, joerak bereizten dituen lerro bat ezar dezakegu 1995. urtearen aurreko eta ondoko lanen artean. Data hori baino lehen, 7 urte behar ziren, batez beste, lan baten itzulpena argitaratzeko (Bernardo Atxagaren *Obabakoak* lana salbuetsirik, 1988an argitaratua eta 1991n Schönbach Verlag argitaletxeak itzulia), eta data horren ondoren, berriz, 3.6 urte (lehen aipatutako Fito Rodríguezen *Faustoren Itzala* lana salbuetsita). Beherakada hori aipatzen ari garen euskal literatur sistema finkatzearen ondorioa izan daiteke.

¹³ Amets Arzallusen eta Ibrahima Balderen «Miñan» Raul Zelikek itzuli du euskaratik alemanera. Suhrkamp argitaletxeak kaleratu du, «Kleiner Bruder» izenburupean.

¹⁴ Argitaratutako bi antologiak izan ezik, antologiaren jatorrizko testuek ez baitute argitaratze-data bera.

7.2. Argitalpen kopurua



7. Irudia. Gehien itzuli diren lanak, ehunekotan


Grafikoan ikus daitekeen bezala, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) lana izan da alemanez argitaratua, 3 argitalpen izan dituelako, guztien % 16. Datu hori ez da harritzekoa, euskal literaturako lan sarituenetakoa baita (beste askoren artean, Espainiako Narratiba Sari Nazionala (1989), Kritika Saria (1989) eta Euskadi Literatura Saria (1989) irabazi zituen), eta euskal literaturaren mugak gehien gairatu dituenetako bat; izan ere, 27 hizkuntzara itzuli dute.

Gehien argitaratu diren hurrengo lanak *Baskische Märchen* antologia, Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eta Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* (2001) lanak dira; bakoitzak 2 argitalpen izan du, guztien % 10. Hala ere, kontuan hartu behar dugu batzuen kasuan berrargitalpenez ari garela.

Ez da harritzekoa gehien argitaratu diren lanetako bi Bernardo Atxagarenak izatea; izan ere, lehen aipatu ditugunez gain, sari ugari jaso ditu eta oso ezaguna da Euskal Herrian zein nazioartean.

Gainerako lanak (guztien % 54, erdia baino pixka bat gehiago) behin bakarrik argitaratu dira. Argitaratutako lanen ia beste erdia (% 46) behin baino gehiagotan argitaratu izanak euskara-alemana norabidean itzulpengintzaren merkatua guztiz finkatuta ez dagoela erakusten du, eta, ulergarria denez, jatorrizko kulturaren edo xede-kulturaren arrakasta izan duten lanak argitaratzeko joera dagoela.

7.3. Generoak



8. Irudia. Gehien itzuli diren generoak, ehunekotan


Grafikoan irudikatzen den bezala, gehien itzuli den generoa narratiba da (% 65, ia argitalpenen herena). Bigarrena haur eta gazte literatura (HGL) da (% 25). Hurrengoak, bakoitzak itzulpenen % 5 duela, bai saiakera (Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*) bai bilduma (Harkaitz Cano eta Juan Kruz Igerabideren *Cuadernos de Villa Waldberta - Aufzeichnungen aus der Villa Waldberta*) dira.

Hala ere, behin baino gehiagotan itzulitako lanak alde batera uzten baditugu eta soilik izenburu originalen itzulpenei erreparatzen badiegu, murriztu egiten da narratibaren (% 50) eta HGLren (% 25.72) arteko aldea, nahiz eta narratibak nagusi izaten jarraitzen duen.

Emaitzak aztertzean, harritu egin gaitu nobelaren nagusitasunak, haren ordeztu HGL topatzea espero baikenuen; Manterolak (2011: 68) dioenez, «Frankismoa amaitu ondoren, euskara hezkuntza sisteman sartu zen, eta, ondorioz, literatura mota horren eskariak gora egin zuen. Beraz, 80ko hamarkadatik hona, euskarazko HGL ekoizpen handieneko generoa izan da eta da oraindik ere».

Manterolak (*ibid.*) dioten bezala, «[HGLren] itzulpenari dagokionez, [beste hizkuntzetatik] (...) gehien itzuli dena [izan da]». Alemana-euskara konbinazioaren kasuan ere hala da, Arancónen (2020: 20) ikerketak ematen dituen datuei esker egiazta dezakegun bezala; horrela, HGL da alemanetik euskarara gehien itzulitako generoa (% 70.06), baina ez euskaratik alemanera itzulitakoa.

7.4. Autoreak




9. Irudia. Autore itzulienak, ehunekotan

Gehien itzuli den egilea Bernardo Atxaga da. Izan ere, zeharkako itzulpenen erdia baino gehiago (11 sarrera: % 59) bere lanei dagozkie. Horren arrazoia, lehen esan dugun bezala, egileak duen tokiko eta nazioarteko ospean datza. Katalogoan 11 sarrera izan arren, kontuan izan behar dugu horietako batzuk berrargitalpenak direla. Izenburu originalak aztertuz gero, 8 bereiz ditzakegu: *Obabakoak* (1988), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Xolak badu lehoien berri* (1995), *Zeru horiek* (1995), *Xola eta basurdeak* (1996), *Banbuloren istorio banbulotarrak: krisia* (1998), *Banbuloren istorio banbulotarrak: lehen urratsak* (1998) eta *Soinujolearen semea* (2003). Izenburu originalak bakarrik kontuan hartuta ere, Bernardo Atxagak jarraitzen du, distantzia handiarekin, egilerik itzuliena izaten.

Hurrengo egile itzuliena, bi sarrera dituela (% 10), Unai Elorriaga da. Hala ere, kontuan izan behar dugu egile horren berrargitalpenak ere egon badaudela. *SPrako tranbia* (2001) lanaz ari gara; antologiei dagokienez, 1980an argitaratutako eta aurrerago bigarren aldiz berrargitaratutako *Baskische Märchen* dugu (hainbat autorek zeharka itzulia). Bestelako autoreek % 21 suposatzen dute: Harkaitz Cano eta Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Fito Rodríguez eta Joseba Sarrionandia.

7.5. Zubi-hizkuntzak



10. Irudia. Itzulpenetan erabilitako zubi-hizkuntzak, ehunekotan

Katalogoa eratu eta datuak aztertu aurretik espero genuen bezala, gaztelania (soilik) da itzultzeko erabili den zubi-hizkuntza nagusia (% 89). Bestelako % 11 frantsesa, gaztelania eta ingelesaren arteko nahasketa izan da, horiek izan baitira katalogoko antologia itzultzeko erabili diren hizkuntzak.


Lanaren atal teorikoan azaldu dugun moduan, LKE batzuetako ezaugarri bat hizkuntza gutxituek hizkuntza zentralarekiko duten mendekotasuna da; horretarako arrazoiak, berriz, askotarikoak dira: lanean zehar aipatutako gabezia fisikoak (testuak lortzeko zailtasunak), gabezia kognitiboak (itzultzeko gai diren profesionalak lortzea), euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuak hitz egiten diren tokietako elebitasun asimetrikoa, LKEtako hizkuntza zentralen eta sistemen presentzia oso nabarmena, eta abar. Euskarak bai Espainiako bai Frantziako LKEetan parte hartzen du, eta, beraz, logikoa eta aurreikustekoa da euskal literatur-polisistema gaztelanian edo frantsesean sostengatuko dela, euskarazko lanak zeharka LKEko kanpoko edo berezko beste hizkuntzetara itzultzerakoan.

Gerta liteke, Domínguezek (2008: 184) dioen bezala, LKEaz kanpoko zubi-hizkuntza bat erabiltzea LKEko hizkuntza zentralentzako ere fisikoki edo kognitiboki eskuraezinak diren hizkuntzetara itzulpenak egiteko. Hala ere, hori ez da gure kasua, euskaratik alemanerako zeharkako itzulpen literarioak aztertzen ari baikara, eta, deskribatu dugun moduan, dagoeneko egin egiten dira euskaratik alemanerako itzulpen

zuzenak; horrenbestez, arraroa izango litzateke euskal literatur-polisistemak euskarak parte hartzen duen LKEtik kanpoko hizkuntza batera jo behar izatea zeharkako itzulpenak egiteko; gaztelaniak edo frantsesak lotura handia dutelako alemanarekin, hainbat naziotako hizkuntza ofizialak direlako, nazioartean gehien hitz egiten diren hizkuntzen artean daudelako eta geografikoki hurbil daudelako (Espainia, Frantzia eta Alemaniaren kasuan).

Gauzak horrela, gaztelania (guztiz edo partzialki) zubi-hizkuntza gisa erabili da gure katalogoko lanen % 100ean. Gaztelaniaren nagusitasun nabarmena espero genuen aldeaz aurretik, baina ez hain erabatekoa izango zenik. Harritu egin gaitu frantsesaren presentzia apenas topatzeak, lan honen atal teorikoan azaldu dugun eta esan berri dugun bezala, euskarak bai Espainiako bai Frantziako LKEetan parte hartzen baitu. Joera hori hertsiki loturik dago euskararen literatur sistemak dituen berezko ezaugarriekin.

7.6. Itzultzaileak



11. Irudia. Gehien itzuli duten itzultzaileak, ehunekotan


Gure katalogoko sarrera gehienetan agertzen den itzultzailea Giovanna Waeckerlin-Induni da, 5 sarrera dituela (guztien % 27) eta guztiak ere Bernardo Atxagaren lanak direla. Sarrera gehien dituzten hurrengo itzultzaileak honakoak dira, bakoitzak 2 sarrera dituela (% 10): Erentrudis Laserer eta Felix Karlinger, Karl. A. Klewer, Sabine Müller-Nordhoff eta Katrin Schulz.

Hala ere, gorago esan dugun bezala, kontuan hartu behar dugu katalogoko sarrera batzuk berrargitalpenei dagozkiela edo bi argitaletxe desberdinek lan bera argitaratu dutela. Beraz, datuak aldatu egiten dira izenburu originalak soilik aztertzen baditugu. Giovanna Waeckerlin-Indunik bi lan itzuli ditu: *Obabakoak* eta *Gizona bere bakardadean*. Sabine Müller-Nordhoffek ere bi lan itzuli ditu: *Banbuloren istorio banbulotarrak: krisia* eta *Banbuloren istorio banbulotarrak: lehen urratsak*. Katrin Schulzek bi lan itzuli ditu: *Xolak badu lehoien berri* eta *Xola eta basurdeak*. Erentrudis Laserer eta Felix Karlinger katalogoko bi sarreratan agertzen dira, nahiz eta lan bakar bat itzuli duten (berrargitalpen batez ari baikara): *Baskische Märchen* antologia. Egoera berean dago Karl A. Klewer *SPrako tranbia* lanarekin.

Gainerako itzultzaileak (% 33) katalogoko sarrera batean baino ez dira agertzen, hau da, gehienez lan bakarra itzuli dute: Ruth Baier, Manfred Boes, Matthias Strobel, Samuel Tanhäuser, Karin Zaitani eta Will Zürbruggen.

Interesgarria iruditzen zaigu aipatzea gure katalogoko sarrera guztien artean emakumezko autore bakarra dugula: Mariasun Landa (% 5.26, gizonezkoen % 94.74ren aldean); aldiz, % 57.89ren kasuan emakumezkoak dira itzultzaileak, gizonezkoen % 42.11ren aldean. Datu-base handiago batekin hobeto egiazta baliteke ere, datu horrek erakutsi liezaguke literaturak espazio maskulinizatua izaten jarraitzen duela ikusi ditugun lanetan, eta emakumeak gailentzen direla itzulpen literarioaren esparruan.

7.7. Argitaletxeak



12. Irudia. Lan gehien argitaratu dituzten argitaletxeak, ehunekotan

Grafikoan irudikatu dugun bezala, alemanera zeharka itzulitako euskal lan gehien argitaratu dituen argitaletxea Altberliner Verlag izan da, 5 sarrera dituela (5 izenburu original, gainera), guztien % 27. Hurrengoa, 3 sarrera dituela (2 izenburu original), Unions Verlag izan da, guztien % 16. Hurrengoak, bakoitzak 2 sarrera dituela (izenburu original bakarrarekin), Diederichs eta Schönbach Verlag izan dira.

Gainerako argitaletxeak, % 37, sarrera bakar batean baino ez dira agertzen: Books on demand, Cervantes Institutua, Insel Verlag, Piper Verlag, Schöffling & Co. Verlag, Suhrkamp Verlag eta Verlag Libertäre Assoziation.

8. Ondorioak

Lan honetan zeharkako itzulpenaren ezaugarriak, hura gertatzeko arrazoiak eta dinamikak azaldu nahi izan ditugu, bereziki euskal literatur-polisistemaren esparruari gagozkiolarik; izan ere, atal teorikoan azaldu dugun bezala, euskara itzulpen-praktika horri esker elikatzen da, beste hizkuntza gutxitu batzuekin partekatutako zenbait ezaugarriren eraginez (aipatutako gabezia fisikoak eta kognitiboak, elebitasun asimetrikoa, LKEetako hizkuntza nagusien eta sistemen presentzia oso nabarmena, etab.). Jarraian, guk atondutako katalogo baten bidez beste hizkuntza batzuetara (alemanera, zehazki) egindako zeharkako itzulpenaren ezagutza sakondu nahi izan dugu, euskal literatur-polisisteman hain nabarmena izan den itzulpen-estrategia horren ezaugarriak, bai eta dinamikak ezagutzeko ere.

Gure katalogoa sortzeko bi iturri nagusi izan ditugu: Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI) eta EIZIERen NorDaNor datu-basea. Ziurtatu dezakegu iturri fidagarriak eta kalitatezkoak direla, euskaratik kanporako itzulpenean (ELI) nahiz bai euskaratik kanporako bai euskararako itzulpenean (NorDaNor) sakontzen baitute. Gainera, iturriak urtero eguneratzen dira, eta, beraz, gure katalogoko datuak eguneratuta daude. Katalogoa prestatu ondoren, lanaren atal metodologikoan zehaztutako hainbat irizpidetan jarri dugu arreta, eta grafikoaren bidez jasotako datuak azaldu ditugu. Datu horietatik ateratako zenbait ondorio aurreikus zitezkeen (gaztelaniaren nagusitasuna zubi-hizkuntza gisa edo Bernardo Atxagaren nagusitasuna autore gisa, besteak beste) baina beste batzuek, neurri txikiagoan edo handiagoan, lana egin aurretik genituen alde aurreko ideiak aldatu dituzte.

Katalogoaren analisiaren atal kronologikoari dagokionez, nabarmentzekoa da zeharkako itzulpenen beheranzko joera zuzeneko itzulpenen goranzko joeraren aldean. Mendez mendeko bilakaeran egiazta dezakegu joera hori; izan ere, zeharkako itzulpenen herena baino ez da egin XXI. mendean, zuzeneko itzulpenen % 81.25arekin alderatuta. Era berean, dinamika bera topatuko dugu urteen araberrako bilakaeran; zeharkako itzulpenen ekoizpenaren gailurra 1990-1999. hamarkadan izan genuen, eta, horren ondoren, zeharkako ekoizpenak beherakada handia izan du. Beste aldetik, zuzeneko itzulpenen ekoizpenaren gailurra 2000-2009. hamarkadan izan genuen. Horren ondoren, zuzeneko itzulpenek ere beherakada jasan dute (azken urteotan alemanera gutxiago itzuli delako, besteak beste), baina nagusitasunari eutsi diote.

Joera hori lan osoan gogoan izan dugun dinamikaren ondorio zuzena da: zeharkako itzulpena hizkuntza zentralerikiko mendekotasun egoeraren sintoma gisa ikusten da eta zuzeneko itzulpenaren nagusitasunak, berriz, literatur-polisistemaren heldutasuna erakusten du. Beraz, ondoriozta dezakegu aurrean duguna euskal literatur-polisistema finkatzeko prozesu nabarmena dela. Finkatze-prozesu hori azaltzeko, aipatu berri ditugunez gain, jatorrizko lan bat argitaratzen denetik zeharkako itzulpena argitaratzen den arte igaro den denboraren laburtze progresiboaren batz bestekoari ere erreparatu diezaiokegu, besteak beste. Literatur-polisistemaren heldutasunaren ondorio argia da hori, kanpoko hizkuntzak hizkuntza gutxitutik egindako itzulpena serio hartzeko duen seinale.

Halaber, komenigarria da argitalpenen kopuruari eta gehien itzultako egileei buruzko ondorioak batzea, katalogoaren azterketak biei buruz ematen dituen datuak estuki lotuta baitaude. Lehenik eta behin, ez da harrizkoa Bernardo Atxagaren *Obabakoak* lana alemanera zeharka gehien itzuli den euskal lana izatea, euskal literaturako lanik sarrituenetakoa baita. Horrekin batera, ez da harrizkoa Bernardo Atxaga izatea, katalogoko sarreraren erdia baino gehiago duela (lanen % 59), alemanera zeharka gehien itzultako euskal egilea. Hori Atxagak nazioartean duen pisuaren erakusgarria ere bada, eta planteatu dugun beste hipotesi bat berresten du.

Katalogoan aztertutako lanen literatur generoari dagokionez, narratiba generoko lanak izan dira itzulienak, eta, horren atzetik, HGL. Analisiaren atalean esan dugun bezala, datu horrek harritu egin gaitu; izan ere, arrazoi historiko, politiko eta kulturalengatik, HGL da, Manterolaren arabera (2011), euskal literaturan gehien ekoizten eta kontsumitzen den generoa. Gainera, beste hizkuntzetatik euskarara gehien itzultzen den generoa ere bada. Arancónen (2020) ikerketak eskaintzen dituen datuen arabera, alemanari dagokionez errealitate hori betetzen dela ikus dezakegu, HGL baita hizkuntza horretatik euskarara gehien itzultako generoa. Euskaratik alemanera HGL gutxi itzuli izanak genero horrek alemanez duen pisua iradokitzen digu, edo/eta euskara ez den beste hizkuntza batzuetatik inportatzen dutela.

Zubi-hizkuntzei (gure lanaren berezitasunetako bat, zeharkako itzulpenaren izaera bera dela eta) dagokienez, egiazta dezakegu gaztelania dela gure katalogoan jasotako lanen % 100ean zubi-hizkuntza, kasu gutxi batzuetan frantsesa eta ingelesa, gaztelaniarekin espazioa partekatuz, ere ageri diren arren. Horrela, gaztelania zubi-

hizkuntza nagusia izango zela planteatzen zuen gure hipotesia berresten da. Hala ere, esanguratsua iruditzen zaigu frantsesaren presentzia eskasa, eta horrek pentsarazi diezaguke Espainiako LKEren eta sistemaren presentzia eta eragina handiagoak direla (literaturaren esparruan, beti ere) Frantziako LKEk eta sistemak euskal literatur-polisisteman duten presentzia eta eragina baino; era berean, horrek pentsarazi diezaguke frantsesez hitz egiten den Euskal Herriko herrialdeetan (eta, beraz, LKEko hizkuntza nagusia frantsesa denetan) euskarazko literatur ekoizpena askoz txikiagoa dela gaztelaniaz hitz egiten denetan (eta, beraz, LKEko hizkuntza nagusia gaztelania denetan) baino; horregatik ez dago, beste arrazoi batzuen artean, frantsesa bitarteko hizkuntza gisa duten zeharkako itzulpenen hainbesteko eskaerarik.

Azkenik, itzultzaile eta argitaletxeen aniztasuna nabarmendu behar dugula deritzogu. Katalogoak barne hartzen dituen 19 sarreretatik (berrargitalpenak kontuan hartuta), 11 sarreretan itzultzaile desberdinak aurkezten zaizkigu. Argitaletxeei dagokienez, katalogoko 19 sarreretatik, 11 sarreretan argitaletxe desberdinak agertzen dira. Datu horien heterogeneotasunak iradokitzen digu ez dagoela estrategia zehatz eta finkaturik euskal literatura alemanera itzultzeko prozesuan.

Gradu Amaierako Lan hau amaitzeko, hiru gogoeta jarri nahi ditugu mahaiaren gainean: alde batetik, eta lanaren atal teorikoan azaldu dugun bezala, datuek erakusten digute euskarazko literaturak normalizazio- eta estandarizazio-prozesuan murgilduta jarraitzen duela, eta, beraz, horrek euskal literaturaren itzulpengintzari eragiten diola. Gure azterlana euskal literatur-polisisteman gauzatzen den zeharkako itzulpenetan sakontzen hasteko lehen urratsa dela uste badugu ere, etorkizunean ikertzen jarraitzea ezinbestekoa dela deritzogu.

Planteatu nahi dugun bigarren gogoeta da beste ikerketa-ildo interesgarri bat izan litekeela literaturaren zeharkako itzulpenaren egoera estatuko beste hizkuntza ez-hegemonikoen esparruan ikertzea eta euskararen datuekin alderatzea. Uste dugu hori aberasgarria izango litzatekeela hizkuntza batzuen eta besteen artean gertatzen diren errealitate eta dinamika desberdinak ezagutzeko, eta tresna baliagarria izango litzatekeela espainiar estatuko LKEren ezaugarriak hobeto ezagutzeko.

Amaitzeko, lan honetan euskaratik alemanerako zeharkako literatur itzulpena izan dugu ardatz; hala ere, euskal literaturaren zeharkako itzulpenaren errealitatea eta, beraz,

euskal literaturako itzulpengintzaren esparrua sakonago ezagutzeko, oro har, esan nahi genuke beharrezkoa dela euskal literatura beste hizkuntza batzuetara (alemanaz gain) zeharka nola itzuli den aztertzea. Uste dugu interesgarria izan litekeela emaitzetan izan daitezkeen antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea; horri esker, euskal literatur-polisisteman zeharkako itzulpenak duen pisuaren ikuspegi zabalagoa izango genuke.

9. Bibliografia

- Arancón, María (2020). *Euskarara itzuli diren alemanezko literatur lanen analisia*. Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabea).
- Babiano, Mikel (2021). Literatura vasca en alemán: una aproximación cultural. In Ute Barbara Schilly (Arg.), *Die internationale Rezeption der Literaturen Spaniens* (27-76 or.). Berlin: Frank & Timme.
- Domínguez, Mónica (2008). *Las traducciones de literatura infantil y juvenil en el interior de la comunidad interliteraria específica española (1940-1980)*. Servizo de Publicacións e Intercambio Científico. Doktore-tesia, Universidade de Santiago de Compostela.
- Đurišin, Dionýz (1993). *Commaunatés interlittéraires spécifiques 6: notions et principes*. Bratislava: Slovenská akadémia vied.
- Echenique, Maite (2006). Historia lingüística vasco-románica. *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura*, 21: 25-44 or.
- EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak). (2020). EIZIE Elkarteak. *EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak)* [linean]. <https://eizie.eus/eu/elkartea> [Azken kontsulta: 2021/05/11].
- EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak). NorDaNor datu-basea [linean]. <http://nordanor.eus/?n=1> [Azken kontsulta: 2021/04/20].
- Europako Batzordea (2012). Europeans and their Languages. *Special Eurobarometer 368*. Otsaila - Martxoa.
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. (2016). *VI. Inkesta soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia - Servicio Central del Gobierno Vasco.
- Even-Zohar, Itamar (1990) [1975]. Polysystem Theory. *Poetics Today* 11:1: 9-26 or. (Itzulpena: Ricardo Bermudez Otero).
- Gambier, Yves (2003b). Working with relay: An old story and a new challenge. In L. Pérez (Arg.), *Language across Contexts and Users* (47-66 or.). Valentzia: Universitat de València.

- Jaeger, C. Stephen (1998). German literature. *Encyclopedia Britannica* [linean]. <https://www.britannica.com/art/German-literature> [Azken kontsulta: 2021/04/20].
- López, Manu (2009). Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008). *Senez: itzulpen aldizkaria*, 37: 299-311 or.
- Maia, Rita; Pięta, Hanna (2017). IndirecTrans [linean]. www.indirectrans.com [Azken kontsulta: 2021/04/20].
- Maia, Rita; Pięta, Hanna; Rosa, Alexandra (2017). Theoretical, methodological and terminological issues regarding indirect translation: An overview. *Translation Studies*: 10:2: 113-132 or.
- Manterola, Elizabete. Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI) [linean]. <https://www.ehu.eus/ehg/eli/>. Euskara Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea [Azken kontsulta: 2021/04/20].
- Manterola, Elizabete (2011). La traducción de literatura vasca a otras lenguas. *mTm: minor Translating major - major Translating minor - minor Translating minor*, 3: 58-79 or.
- Manterola, Elizabete (2012). Euskal literatura itzuliari buruzko tesia. *Senez: itzulpen aldizkaria*, 43: 115-132 or.
- Pérez, Santiago (2014). La literatura vasca en el contexto de los estudios ibéricos. *1616: Anuario de la Sociedad Española de Lteratura General y Comparada*, 4: 107-126 or.
- Ringmar, Martin. (2007) "Roundabout Routes": some remarks on indirect translations. In F. Mus (Arg.), *Selected Papers of the CETRA Research Seminar in Translation Studies 2006*. Katholieke Universiteit Leuven.
- Sanz-Villar, Zuriñe (2014). *Unitate fraseologikoen itzulpena: alemana-euskara. Literatur testuen corpusean oinarritutako analisisa*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Sanz-Villar, Zuriñe (2018). Diseño, descripción y análisis de un corpus multilingüe (alemán-español-euskera). *TRANS: revista de traductología*, 22: 133-148 or.

Shuttleworth, Mark (1997). *Dictionary of Translation Studies*. Londres: Routledge.

Trask, Robert Lawrence (1995). Origins and relatives of the Basque language. In J.I. Hualde, J.A. Lakarra, R.L. Trask (Arg.), *Towards a History of the Basque Language* (65-100 or.).

UNESCO Culture Sector. *Index Translationum* [linean]. <https://maintenance.unesco.org/>
[Azken kontsulta: 2021/04/20].

Zabaleta, Josu (2019). La estandarización del euskera: breve historia y resultados. *Limite: Revista de Estudios Portugueses y de la Lusofonía*: 13:2: 123-142 or.

Zubillaga, Naroa (2014). Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura. *Senez: itzulpen aldizkaria*, 45: 151-166 or.

1. Eranskina: Euskaratik alemanera zeharka itzulitako literatur lanen katalogoa

Jatorrizkoa	Egilea	Urtea	Generoa	Jatorrizkoaren argitaletxea	Itzulpena	Zubi-hizkuntza(k)	Itzultzailea	Itzulpenaren urtea	Itzulpenaren argitaletxea
(antologia)	(hainbat)	(hainbat)	Narratiba	(-)	<i>Baskische Märchen</i>	Frantsesa, gaztelania, ingelesa	Erentrudis Laserer; Felix Karlinger	1980	Diederichs
(antologia)	(hainbat)	(hainbat)	Narratiba	(-)	<i>Baskische Märchen</i> (2. arg)	Frantsesa, gaztelania, ingelesa	Erentrudis Laserer; Felix Karlinger	1990	Diederichs
<i>Obabakoak</i>	ATXA GA, Bernardo	1988	Narratiba	Erein	<i>Obabakoak; oder, Das Gänsespiel</i>	Gaztelania	Giovanna Waeckerlin-Induni	1991	Schönbach Verlag
<i>Obabakoak</i>	ATXA GA, Bernardo	1988	Narratiba	Erein	<i>Obabakoak; oder, Das Gänsespiel</i>	Gaztelania	Giovanna Waeckerlin-Induni	1995	Schönbach Verlag
<i>Obabakoak</i>	ATXA GA, Bernardo	1988	Narratiba	Erein	<i>Obabakoak; oder, Das Gänsespiel</i>	Gaztelania	Giovanna Waeckerlin-Induni	1995	Unionsverlag
<i>Gizona bere bakardadean</i>	ATXA GA, Bernardo	1993	Narratiba	Pamiela	<i>Ein Mann allein</i>	Gaztelania	Giovanna Waeckerlin-Induni	1997	Unionsverlag ; Schönbach Verlag
<i>Gizona bere bakardadean</i>	ATXA GA, Bernardo	1993	Narratiba	Pamiela	<i>Ein Mann allein</i>	Gaztelania	Giovanna Waeckerlin-Induni	2002	Unionsverlag
<i>Xolak badu lehoien berri</i>	ATXA GA, Bernardo	1995	HGL	Erein	<i>Shola und die Löwen</i>	Gaztelania	Katrin Schulz	1997	Altberliner Verlag

<i>Zeru horiek</i>	ATXA GA, Bernardo	1995	Narratiba	Erein	<i>Fenster zum Himmel</i>	Gaztelania	Will ZÜRBRUGGEN	1999	Suhrkamp Verlag
<i>Xola eta basurdeak</i>	ATXA GA, Bernardo	1996	HGL	Erein	<i>Shola und die Wildschweine</i>	Gaztelania	Katrin Schulz	1998	Altberliner Verlag
<i>Banbuloren istorio banbulotarrak: krisia</i>	ATXA GA, Bernardo	1998	HGL	Erein	<i>Banbulo auf den Hund gekommen</i>	Gaztelania	Sabine Müller-Nordhoff	2000	Altberliner Verlag
<i>Banbuloren istorio banbulotarrak: lehen urratsak</i>	ATXA GA, Bernardo	1998	HGL	Erein	<i>Banbulos wagher Lügengesichten</i>	Gaztelania	Sabine Müller-Nordhoff	2000	Altberliner Verlag
<i>Soinujolearen semea</i>	ATXA GA, Bernardo	2003	Narratiba	Pamiela	<i>Der Sohn des Akkordeonspielers</i>	Gaztelania	Matthias Strobel	2006	Insel Verlag (Suhrkamp Verlag)
<i>Cuadernos de Villa Waldberta - Aufzeichnungen aus Villa Waldberta</i>	CAN O, Harkaitz; IGER ABIDE, Juan Kruz	2010	Bilduma	Cervantes Institutua	<i>Cuadernos de Villa Waldberta - Aufzeichnungen aus Villa Waldberta</i>	Gaztelania	Manfred Boes	2010	Cervantes Institutua
<i>SPrakotranbia</i>	ELORRIAGA, Unai	2001	Narratiba	Elkar	<i>Lucas oder der Himmel Nepal</i>	Gaztelania	Karl A. Klewer	2005	Schöfling & Co. Verlag
<i>SPrakotranbia</i>	ELORRIAGA, Unai	2001	Narratiba	Elkar	<i>Der Traum vom Himmel Nepal</i>	Gaztelania	Karl A. Klewer	2006	Piper Verlag

<i>Errusika</i>	LAND A, Marias un	1988	HGL	Elkar	<i>Tanz, Russika, tanz!</i>	Gaztelania	Karin Zaitani	1997	Altberliner Verlag
<i>Faustoren itzala</i>	RODR ÍGUE Z, Fito	2004	Narratib a	Ultriusque Vasconiae	<i>Der Schatten Fausts</i>	Gaztelania	Samuel Tannhäuser	2016	Books on Demand
<i>Ni ez naiz hemengoa</i>	SARR IONA NDIA, Joseba	1985	Saiakera	Pamiela	<i>Von nirgendw o und überall</i>	Gaztelania	Ruth Baier	1995	Verlag Libertäre Assoziation